ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 11, asteazkena • 130 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

740/2026 Erabakia, azaroaren 3koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea 2026-2027 kanpainarako, ardotarako mahatsen nekazaritza aseguru konbinatuen urteko planetan jasotako nekazaritza aseguruak kontratatzeko laguntzen deialdiaren aurretiazko izapidetzea

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 1eko 31/2025 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaien nekazaritza aseguruak kontratatzeko laguntzak emateko oinarriei eta 2024-2025 kanpainarako deialdiari (Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 28ko 37/2025 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen), eta mahastietako aseguruei dagozkien aseguru lerroak lagundu ziren diruz (ardotarako mahatsaren ustiategirako asegurua edo lerro baliokidea urteko ekitaldi bakoitzean, Araban aplikatzekoa bada).

Dekretu horrek mahastietan nekazaritzako aseguruak egiteko laguntzak arautzen ditu, Agrupación Española de Entidades Aseguradoras de Seguros Agrarios Combinados SA (AGROSEGURO) elkartearekin egindako hitzarmen batean ezarritakoaren arabera. Hitzarmen hori sinatzea Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak onetsi zuen, Nekazaritza Sailaren uztailaren 30eko 248/2025 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera.

Bestalde, 2026-2027ko kanpainarako mahastietarako polizak izenpetzeko epea 2026ko azaroaren 1ean hasiko denez, AGROSEGUROk kanpaina horretarako polizen deialdia izapidetzen hasteko eskatu du, polizen harpidetza aldia azaroaren 1ean hasten denean jada onetsita egon dadin.

Beraz, mahastien aseguruetarako laguntzen 2027rako deialdia onetsi behar da, gastuaren izapidetze aurreratuaren bidez, eta hura finantzatzeko behar den kreditu erreserba egingo da. Beraz, dagokion deialdia onestea proposatzen da.

Nekazaritza zuzendaria ados dago proposamenarekin.

Horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea 2026-2027 kanpainarako ardotarako mahatsaren nekazaritzako aseguru konbinatuen urteko planetan sartuta dauden nekazaritza aseguruak kontratatzeko laguntzen deialdia aldez aurretik izapidetzeari, honako xehetasunen arabera:

1. Kreditu erreserba: 300.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2027ko ekitaldirako gastu aurrekontuko eta behar bezala funtsez hornituko den 40104. G/419401/47900402/2027 "Mahastietako aseguruen kontratazioa sustatzea" partidaren kontura. Zenbateko hori dagokionean aplikatu eta ordainduko zaio AGROSEGURO SA entitateari, Nekazaritza Sailak aurkeztutako eta onetsitako likidazioetan oinarrituta.

Kreditu hori urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz handitu ahal izango da. Gehikuntzaren zenbatekoak ezin izango du gainditu hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100.

2. Diruz lagunduko diren polizak 2026-2027 mahastizaintza kanpainarako sinatutakoak izango dira, hau da, 2026ko azaroaren 1etik 2027ko maiatzaren 31ra bitartean sinatutakoak. Horrez gain, hala badagokio, 2025-2026 mahastizaintza kanpainako aurreko deialdietan laguntzeke geratu diren polizak ere lagundu ahal izango dira, alegia, 2025eko azaroaren 1etik 2026ko maiatzaren 31ra bitartean sinatutakoak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

3. Diruz lagundu daitezkeen aseguru motak: 2026an indarrean dagoen nekazaritzako aseguru konbinatuen plan nazionalean jasota dagoen eta penintsulako eta Balear Uharteetako ardotarako mahatserako berme gehigarriak dituen oinarrizko aseguruaren lerroari dagozkionak eta Arabako Lurralde Historikoan kokatutako lurzatietan aplikatzekoak, eta modulu hauek:

SB, SB+GA 1, SB+GA1+GA2 moduluak (GA4rekin edo gabe) eta SB+GA1+GA2+GA3 moduluak (GA4rekin edo gabe): ENESAren dirulaguntzaren ehuneko 45.

P moduluak: ENESAren dirulaguntzaren ehuneko 30.

Soilik zenbatuko dira Mahastien Erregistroan inskribatutako azalerarekin bat datorren azalerako esparruak; edonola ere, oinarri arautzaileetan ezartzen diren murrizketak egin ahalko dira.

4. 100,00 euroko gutxieneko dirulaguntza eta 2.200,00 euroko gehieneko muga ezartzen dira poliza bakoitzeko, kontuan hartuta poliza nagusiak bakarrik ordainduko direla eta poliza osagarriak ez direla diruz lagunduko.

Bigarrena. Dirulaguntzak emateko baldintza etengarria izango da kreditu egoki eta nahikoa egotea Arabako Foru Aldundiaren 2027erako aurrekontu antolamenduan.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko titularrari ahalmena ematea laguntza lerro honetarako deialdia garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Laugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa, hilabeteko epean, Foru Gobernu Kontseiluari. Hori guztia, bat etorriz Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluak xedatutakoarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluak ezarritakoarekin lotuta.

Bosgarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 3a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua
NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria
DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.11 06:53:40 Z